





Ongi etorri Mateo



Maria Ayesa Usechik idatzi eta ilustratu du,
bere alaba Olatz, Maitane eta Iratxe Villafranca Ayésaren
laguntza paregabearekin







Eskerrik asko Sonia Ciriza eta Miguel Ayesari argitalpen honen maketazioa egiteagatik

Ongi etorri Mateo




En este 2020 tan atípico, en Magale hemos recibido este cuento con mucha alegría. Agradecemos a la escritora María Ayesa, madre de acogida, la donación de este maravilloso cuento. Sobre todo es un regalo que nos dejen abrir, junto con sus hijas Olatz, Maitane e Iratxe, una ventana de su casa para poder ver qué es el acogimiento familiar “en directo”, y la llegada de Mateo a sus vidas.

Será nuestro regalo a los colegios participantes en este I Día del Pijama en Navarra.

Asociación Magale (Asociación Familias de Acogida de Navarra-Harrera Familien Nafar Elkartea)

Gaurko eguna balitz bezala gogoratzen dut. Ostiral arratsalde bat zen, eta eskolaz kanpokoak amaitu genituen, biharamunean festa zen, gure familiaren 3 "p"-ren eguna: pizza, pelia eta palomitak.






Gogoan dut egun hartan, pizza labean zegoen bitartean, gurasoek egongelara deitu gintuztela hiru ahizpak, zerbait kontatu nahi zigutelako.


Beti bezala, erabaki garrantzitsu bat hartu behar zen bakoitzean, asteburua autokarabanarekin nora joan, asteko menua zein izango zen, edo zineman ze filma ikusiko genuen, familia-bilera egiten genuen.

Baina egun hura desberdina zen. Denok sofan eserarazi gintuzten, formal-formal, eta arreta handiz entzuteko eskatu ziguten. Horrek esan nahi zuen gaia oso garrantzitsua zela, baina oso garrantzitsua. Ama hasi zen esaten berak lan egiten zuen lekutik gertu bazegoela etxe bat non ume pila bat bizi ziren aita-amarik gabe, une horretan ezin zituztelako zaindu.




Guri pena handia eman zigun, eta pentsa, nire ahizpak ere, Iratxe eta Maitane, oso sentiberak eta bikiak, ia-ia negarrez hasi ziren, jada 8 urteko neska koxkorrak izan arren.

Amak hizketan jarraitu zuen eta nahi bagenuen haietako bati laguntza eman ahal geniola, gure etxean hartuta, haien gurasoak sendatzen ziren bitartean.



Oso ideia ona iruditzen zaitzaigun. Eta barrezka eta pozez gainezka oihuka hasi ginen. Ez zen ezer negoziatu behar izan. Oso argi geneukan. Ume horietako bati lagundu nahi genion.




Bat-batean oso serio jarri nintzen eta esan nuen:

- Baina oraingoan nik erabakiko dut nor etorriko den! Ez da negoziazorik izango.

Ni naiz hiru ahizpetan gaztetxoena, Olatz dut izena, eta nazkatuta nago ahizpa bikirik ez edukitzeaz, eta ezertan agindu ezin izanaz koxkorrena naizelako.

Beraz, sofan zutik jarri eta esan nuen:

- 5 urteko neska bat etortzea nahi dut, nire bikia izan dadin!



Ezetz esango zutela uste nuen arren,
denak ados egon ziren nire erabakiarekin.
Beraz, konturatu nintzen ez nintzela
ahizpa biki bat behar nuela uste nuen
familiako bakarra. Gau hartan, irribarre
batekin egin nuen lo, irribarre zabala eta
oso handia.



Hurrengo astean, gizarte-ongizatera joan ginen, eta bi mutil jatorrekin elkartu ginen. Hainbat galdera egin zizkiguten gu nolakoak ginen jakiteko, eta zerrenda batean izena eman genuen, umeren batek familia bat behar ote zuen jakiteko.

Elkarrizketa amaitu zenean, nik esan nien:

Ahizpa biki bat nahi dut!

Eta, antza, oso ongi iruditu zitzaien barre egin baitzuten. Irribarre eginez lo egin nuen, beste behin, irribarre zabala eta handi-handia nuela.





Egun horretatik aurrera, goizero, denbora luzez, gurasoei galdetzen nien ea nire bikia etorriko ote zen. Eta goizero, denbora luzez ere, pazientzia izateko erantzuten zidaten.

Hainbesteko pazientzia izan nuen, non ahizpa biki bat izango nuela ere ahaztu zitzaidan, eta egun batean galdetzeari utzi nion.



Urtebete igaro zenean, nire aitaren
urtebetetze-egunean, gizarte-ongizateko
deia jaso genuen, eta esan ziguten, nahi
izanez gero, bazegoela pertsonatxo bat
gure familian pare bat urtez egotea oso
ondo etorriko zitzaiona.

Oso pozik nengoen! Azkenik... nire bikia!



Astelehena goiza zen, eta gure etxetik gertu dagoen txalet batera joan ginen nire bikia ezagutzera. Urduri demonio nengoen! Gela batean itxaronarazi ziguten bostoi, eta minutu batzuen buruan zaintzaile bat sartu zen nire familiako kide berriarekin. Atea ireki zenean aho bete hortz geratu nintzen. Ene, nola geratu nintzen! Zer esan ez nekiela...




Zaintzailea joan egin zen eta bakarrik utzi gintuen... MUTIKOAREKIN. Bai, entzun duzun bezala, mutikoa zen, eta oso txikia gainera. Hizketan ere ez zekien eta! Gaizki ulertze bat izan behar zuen. Eta nire bikia?

Nik 5 urteko neskato bat nahi nuen, eta ez 2 urteko kakanarrua!



Izugarri haserretu nintzen eta besoak gurutzatuta hormaren kontra eseri nintzen. Ama hurbildu eta zer gertatzen zitzaidan galdetu zidan. Nik esan nion hori ez zela ez bikia, ez ezer, txikitxo bat zela eta kakanarrurik ez nuela nahi nire bizitzan. Eta are gutxiago hain txikia, zeren nire lagunik onenaren ahizpa txikiak, bi urte izanda ere, gutxienez hitz egiten baitu, ibili eta korrika baitabil. Baina honek... ezertxo ere ez! Bera bakarrik ia ezin du zutik mantendu eta.



Orduan, amak azaldu zidan ezin dela aukeratu zein haur nahi duzun, tripan ume bat daukagunean bezala, ezin dela aukeratu nolakoa izango den, etxe horretan aitarik eta amarik ez zutela eta laguntza behar zutela, etxe horretan haur asko zeudela. Eta, segur aski, eman ziguten ume hura zela guztien artean laguntza gehien behar zuen haurra, gurasoek ezin izan ziotelako ezer irakatsi.

Hormaren kontra eserita geratu nintzen pixka batean, baina haserrea aldentzen hasi zitzaidan, ulertzen ari nintzelako zer gertatzen zen. Hori ez zen denda bat non nahi duzun guztia aukeratu dezakezun. Tonbola bezalakoa zen! Zorte kontua!

Salara begira jarri nintzen, nire ahizpak txikitxoarekin nola jolasten ziren begiratzen, eta, egia esan, grazia handia egin zidan ikustea nola egiten zuen barre, eta nola saiatzen zen dena hartzen baina ezin heldu zebilela. Orduan begira geratu nintzaion, eta laster begiratu zidan niri ere. A ze pitxia!




Txakurkume batek bezalako begiak
zeuzkan. Pixka bat pentsatu eta
amarengana joan nintzen, nigatik baietz
–esan nion. Ez genuela zorte handirik
izan bikirik gabe geratu nintzelako, baina
ez zitzaidala axola umetxoaren arreba
nagusia izatea, ni ez bainintzen inoiz
inoren ahizpa nagusia izan.



Eta pentsatzen jarri nintzen... elkarrekin jolasean emango genuen denbora guztian, eta nik erakutsiko niola errugbian eta futboleko jolasten, eta... jolas denetan aritzen. Nik zainduko nuen, jaten emango nion, jantzi egingo nuen... Ama! Nolako lana izango zuen... Orduan galdetu nion ea nola zuen izena txikitxoak, eta esan ziguten Mateo zuela izena. Izen polita! Ondo moldatuko ginela iruditu zitzaidan.

Bi asteren buruan Mateo gurekin bizi zen. Etxea prestatu genion oso-oso gustura egon zedin. Jostailu asko, nik jada erabiltzen ez nituenak, txikitxoentzat zirelako, gorde egin nizkion, iristen zenerako. Zein pozik zegoen! Lehen egunetik, bizitza osoan nire anaia izan balitz bezala iruditu zitzaidan. Egunero pentsatzen nuen ez genuela hain zorte txarrik izan. Bai, zera! Zorte handia izan genuen! Gero eta gehiago gustatzen zitzaidan nire Mateo!



Baina bazen gauza bat oso deigarria egin zitzaidana. Jendeari Mateo etxean hartu genuela esaten genion bakoitzean, guztiek zera esaten ziguten:

“ZE AUSARTAK!”

Eta nik ez nuen ezer ulertzen. Ausartak? Baina zergatik?

Ausarta lehoi hezitzailea da, marrazoen artean igeri dabilen urpekaria, hegazkinetik jausgailuan salto egiten duena, errusiar mendian ibiltzen dena ezeri heldu gabe. Baina gu... Mateo gurean hartzeagatik!

Baina kosk ere ez du egiten eta, hain txikia da gainera. Mateok EZ DU BATERE BELDURRIK EMATEN!

Ni ausarta naiz ez dudalako negarrik egiten dentistarengana noanean, baina ez Mateo etxean hartzeagatik.



Jendeak esaten zigun beste gauza bat haxe:

Zergatik zuen bizitza zailagoa egin?

Nik ez nuen ulertu ere egiten zen zer esan nahi zuten horrekin. Azaldu zidaten arte bide zailetik joatea bezala zela, bide errazetik joan zitekeenean.

Baina gure bizitza lehen bezain erraza da eta. Mateorena, berriz, ez dizut kontatu ere egingo, harena bai aldatu dela. Lehen oso konplikaturik zen, ez zuen gurasorik. Nola liteke 2 urteko haurra ama-aitarik gabe bizitzea!

Izan ere, Mateo oso jatorra baita, eta oso zintzoa. Nire lagunak anaia txikiren bat baino zerbaiteko hobeto portatzen da! Gainera, oso maitagarria da, eta beti musuak ematen dizkigu eta asko maite gaituela esaten digu.

Amak dioenez, etxe batean jende asko dagoenean, nahiz eta beste norbaitekin, ez da nabaritzen.



Niri bost axola jendeak zer esaten duen, nik bakarrik dakit Mateo superheroia dela niretzat, eta hain gustukoak ditudanez superheroiak, bere lehen jarraitzailea naiz.

Eta badakizue zergatik uste dudan superheroia dela? Izan ere, Mateo jaio zenean, gurasoek ez zuten zaintzen, ez zioten laztanik egiten, ez musurik, ez besarkadarik ematen, ez zioten bizikletan ibiltzen irakatsi, ez patinetan, ez igeri egiten, ez zioten ipuinik kontatzen lo egin aurretik, eta erortzen zenean ez zioten sendatzen eta ez zioten kantatzen “senda mina”. Eta nik uste nuen aita-ama guztiek zaintzen zutela, laztanak, musuak eta besarkadak ematen zituztela eta bizikletan eta patinetan ibiltzen eta igeri egiten irakasten zutela, eta ipuin bat kontatzen zutela lotara joan aurretik, eta ume bat erortzen zenean, guraso guztiek sendatu eta “senda mina” abesten zutela.



Horregatik uste dut Mateo mutiko bikaina dela, altueran metro batera iristen ez bada ere. Baina nik ez dut pentsatzen gizajoa edo pena ematen duen pertsona balitz bezala. Ez ba! Justu kontrakoa! Ausarta izan da eta primeran eutsi dio guztiari. Nik ez nukeen egingo, ezta nire gelako lagunek ere. Horregatik guztiagatik, oso pozik nago; Mateok, azkenean, zaintzen eta maite duen familia bat duelako, eta, gainera, etxean asko garenez, inoiz ez zaio inor falta, eta, gainera, gauero ipuin bat izaten du opari.

Mateo bai dela ausarta, mutiko bikaina, superheroia, tira... aparta da! Urtebetean hitz egiten, jolasten, barre egiten, begiratzen, ingelesez ere abesten, errugbian jokatzeko, margotzen, puzzleak egiten ikasi du, hori bai... futboleko jolasten oso txarra izaten jarraitzen du. Nik uste dut lehenago ikasiko duela hegan egiten.

Maite dut anaia izatea. Ea nork ez duen gustuko superheroia baten arreba nagusia izatea!



Eta egunen batean bere aita-amarekin
itzuli behar badu, hori da jendeak esaten
duen beste gauza bat, pena handia
emango dit noski, eta ziur egunen batean
negar egingo dudala, baina oso ondo
sentituko naiz ahal izan dudan guztian
lagundu diodalako, eta ziur nago noizean
behin ikusten jarraituko dudala eta, batez
ere, inoiz ez diodala bere arreba izateari
utziko.

